

GARUNA ETA GOGOAZ: KONTZIENTZI ARAZOAK

Kepa Korta

'Zu', zeure pozak eta zeure penak, zeure oroitzapen eta anbizioak, zeure identitate pertsonala eta nahimen-askatasunaren zentzua, izan ere, ez zara/dira nerbio zelula talde ikaragarri haundi bat eta asoziatutako molekulak besterik.

Francis Crick.

Kontzientzi arazo bat dut. Aitortzen dizuet hasieratik. Oso gutxi dakit kontzientziaz. Eta, hala ere, hemen nago, kontzientziari buruz zuei, garunaz eta gogoaz zientzia egiten duzuenoi, hitzegiteko. Ohituta gaude ikusten nola ustezko filosofoak huntaz eta hartaz mintzatzen diren. Gure inguru hauetako gizarteak filosofoari eskatzen diona horixe izango da, seguruasko: hitzegin dezala abortoaz edo eutanasiaraz, zezenketa edo zaldi-karreraz, zigarroak erretzeko eskubidea eta giza-eskubideez, Iraken kontrako erasoaz edo Irlandako bake prozesuaz, Ermuko faro edo Guggenheim museoaz, edo batek daki zertaz. Baina ni ez nago konforme. Filosofoak, nola ez, askatasuna du, beste edozein herritarrek bezala, edozeri buruz zernahi pentsatzeko eta pentsatzen duena adierazteko. Baina filosofoaren iritziak ez du berez filosofoa izanagatik besteenek baino balio, interes edo legitimitate haundiagorik (filosofiaz ari ez denean, noski). Koherentea izateko, beraz, nik ez nuke kongresu batean kontzientziari buruz hitzegin behar. Hilabete gutxi batzuk baino ez baitira ni gai honi buruz serio irakurtzen hasi nintzela. Horregatik nire kontzientzi arazoa. Ni hemen hitzegiten (idazten) izatearen arrazoi bakarra bere garaian Joseba Jauregiri emandako hitza da.

Tira, aipa dezaket beste arrazoi bat, kolaterala baina kontsolagarria suerta dakidakeena. Inork gutxik daki askorik kontzientziaz. Hala esaten dute kontzientziaren arazoaz arduratzen diren zientzilari eta filosofoak azkenaldi honetan hainbeste ugaldutako diren idatzietan. Badakiten gutxi horren berri laburra ematen saiatuko naiz. Horretarako John Searle filosofo estatubatuarra hartuko dut iturri nagusitzat.¹ Ez da seguruasko abiapuntu fidagarriena. Izan ere,

¹ John R. Searle: *The Rediscovery of the Mind*, Cambridge, MA: MIT Press, 1992; *The Mystery of Consciousness*, London: Granta, 1997; "Animal Minds", *Midwest Studies in Philosophy* XIV, 1994, 206-219.

aurrera eramaten ari diren zientzilanen berri zuzenik ez duen filosofo ailegatuberria izatea leporatu izan diote (ez da, nolana, nire ezjakintasun gradura iristen, noski). Hala ere, esaten duena argi esaten du eta, ni bezala, hizkuntzaren filosofia, semantika eta pragmatikan aritzen da. Hona nik ekartzeko arrazoi nahikoa, nik uste.

1.

Kontzientziaren arazoa, kontzientziaren misterioa ere esaten zaiona, problema terminologikoa da hasteko. Kontzientziaren teoriaren ezean, ez dago 'kontzientzia'-ren definiziorik zirkularra ez denik. Abia gaitzen kontzientziaren ideia zabal batetik:² bizirik eta esna gaudela dauzkagun sentimen egoera subjektiboak dira kontzientzia. Karakterizazio zabal eta zehazgabe honek gauza ezberdinak har ditzake bere baitan.

Azken hauen artean agian garrantzitsuena *auto-kontzientzia* izan daiteke, 'norbera'-ren kontzeptua izatea eta kontzeptu hau norberari buruz pentsatzeko gaitasuna izatea, alegia. Honek hizkuntza eskatzen duela dirudi, eta gizakia beste animalia espezieetatik bereizten duena dela esaten da. Kontzientea den 'nia'-ri buruz pentsatzen duen 'nia' da auto-kontzientea. Baina hau esplikatzen hasi ahal izateko kontzientzia mota oinarritzakoago baten berri eman behar da. Kontzientzia primario honen barruan sartzen dira, adibidez, gauzak nolakoak iruditzen zaizkigun, sentazio, sentimendu eta pertzeptzioaren esperientziak, pentsamendu, desio eta emozioak, gauzen esperientzia subjektiboa, hitz batez.

Kontzientziaren kontzeptu zehazgabe eta zabal hau kontutan hartuta, honako hauek bezalako galderak erantzuten saiatuko gara jarraian:

1) Gizakiez gain, animaliek ba al dute kontzientziarik?

² Gazteleraren eraginpean bizi garen lurralde honetan komenigarria izan daiteke 'conciencia', terminu moralak, eta 'consciencia', terminu psikologikoa, ez direla, adibidez, ingelesez eta frantsesez bereizten. Ezta ere euskaraz, jakina. Adiera psikologikoa oinarritzakoagoa da, ez baitago 'consciencia'-rik gabeko 'conciencia'-rik, bai, ordea, 'conciencia'-rik gabeko 'consciencia'-rik. Gure gaurko gaia kontzientziaren oinarritzako ikuspegi hau da, atarian aipatutako kontzientzi arazoa salbu.

- 2) *Makina bat, robot bat, izan al daiteke kontziente?*
 3) *Zein da garuna eta kontzientziaren arteko harremana?*

Baina aldez aurretik beste galdera hau ere planteatu nahi dut. Zergatik izan dira arazo hauek hain korapilotsuak? Zergatik dira oraindik ere arazo ‘misteriotsu’?

2.

‘Dualismoa’ da neurri haundi batean misterioaren errudun. Dualismo ontologikoa, hasteko. Aristotelek izakiak bizidun eta bizigabeen artean banatu zituen; Descartsek ere substantziak bitan: gogo-substantziak, bere esentzia pentsatzea edo kontziente izatea, eta substantzia fisikoak, estentsioa dutenak. Gogo-substantzia zatiezina eta eternoa da. Gizakia, Descartesen arabera, bi substantzia horietaz egina dago: arima duen makina da. Beste animaliek ez dute arimarik, makina hutsa dira (goiko (1) eta (2)-ri ezezkoa, beraz) eta gorputza eta arimaren arteko harremana Jainkoaren partehartzeaz bakarrik esplika daiteke (hau da, (3)-k misterioa du erantzun gisa).

Gaur egun jende gutxi onartzen du gizakia dela kontzientzia duen animalia bakarra. Zakurrak baduela eta ostrak ez duela esango dizute gehienek eta beste kasu batzutan, txingurriak esaterako, zalantza izango dute. Descartesen dualismoaren formulazio zehatza baztertuko dute segurasko baina, bestalde, gehienon zentzu komunean, gure intuizioan, ‘inkontzientean’ funtsezko dualismo bat sartuta daukagula dirudi: nahi gabe, garuna eta gogoa izaera radikalki ezberdinekoak direla onartzen dugula. Bi mundu erabat berezita kontzebituko bagenitu bezala: izate eta gertaera fisikoen mundua, batetik, izate eta gertaera mentalena, bestetik. Jainkorik ezean, bi mundu horien arteko harremanak misterio bat izaten jarraitzen du.

Dualismo ontologikoaz gain bada beste dualismo mota bat: propietate dualismoa. Hauentzat³ ‘fisikoa’ eta ‘mentala’ substantzia bakar batek aldi berean izan ditzakeen bi propietate mota izendatzeko hitz bi dira. Aurrerago esango dugu zerbait hontaz. Dualismoari monismoa kontrajartzen zaio. Monistak, berriz, idealistak izan daitezke—“dena

³ Esate baterako, Thomas Nagel eta Colin McGinn.

azkenean mentala da”— ala materialistak—“guztia fisikoa edo materiala da”. Gogoaren istudioaz arduratu diren zientzilari eta filosofo gehienek materialismoaren bertsioren bat defendatzen dute gaur egun.

3.

Kontzientziaren esplikazio materialistak zertan diren aurkezten hasi aurretik saia gaitezen argitzen problema zein den. Egin dezagun esperimentu txiki bat.⁴ Eskubiko eskuaz egin atximurka ezkerreko besoan. Zer gertatu da zehazki? Mota ezberdinetako hainbat gauza. Lehenik, neurobiologoek arabera, zure behatz lodi eta indizearen presioak neuronan aktibatze prozesu bat eragiten du zure azaleko sensore hartzaileetan hasi eta bizkarrezurrean gora Lissauerren eremua deitutako tokira doa, eta handik seinalea kortex somato-sensorialera eta agian beste esparru kortikal batzutura doa. Baina azalean presioa egin eta milisekundu batzutura beste mota bateko gauza bat ere gertatu da. Eta honen berri jakiteko ez daukazu espezialisten eta bere jergaren beharrik. Mina sentitu duzu. Ezer seriorik ez. Ziztada txiki baten sentsazio desatsegina zure besoaren azalean. Sentsazio desatsegin txiki horrek badu berarekin mota berezi bateko sentipen subjektibo bat. Sentipena zurea da; zuretzat da akzesiblea besteontzat ez den modu berezi batean. Eta honek ondorio epistemologikoak ditu: zuk zeure minaren berri izan dezakezu, beste batzuk izan ez dezaketen modu berezi batean. Baina ezberdintasuna ontologikoa ere bada: minaren esistentzia lehen-pertsonakoa edo subjektiboa da, prozesu neuronala hirugarren-pertsonakoa edo objektiboa den bitartean. Prozesu neuronala esistitzen da horren esperientziarik duen subjekturik ez dagoenean ere, mina berriz ez da esistitzen, mina esperimentatzen duen subjekturik ezean.

Bi hauetaz gain gertatzen da beste hirugarren gauza bat besoan atximurka egitean. Zure jokabide disposizioa aldatu egiten da. Norbaitek ezer sentitu duzun galdetzen badizu, “Bai, ziztada txiki bat sentitu dut” erantzungo diozu. Demagun hauek direla gertatzen diren hiru gauza motak. Hau honela, minaren sentsazioari buruzko funtsezko gauza zein den galdetzen denean, Searlen ustez, erantzun

⁴ J. R. Searle, *The Mystery of Consciousness*, London: Granta, 1997, 97-98 orr.

zuzena hau da: mina bigarren ezaugarria da, sentipena. Input seinaleek mina *kausatzen dute* eta minak, berriz, zu jokabide disposizio jakin bat izatea kausatzen du. Baina minaren funtsezko ezaugarria barru sentipen kualitatibo berezi bat izatea da. Eta *kontzientziaren problema* filosofian zein natur zientzietan *sentipen subjektibo berezi hauek esplikatzea da*. Sentipen hauek ez dira denak gorputz sentipenak, mina bezalakoa. Pentsamendu prozesu kontzienteak edo esperientzia bisualak ez dira gure adibidearen antzeko gorputz sentipenak baina subjektibitate ontologikoaren kualitate hori dute. Kontzientziaren teoriaren esplikatu beharreko datuak sentipen subjektibo hauek dira. Ibilbide neuronalen azalpena datuak esplikatzeko teoria partzial bat baino ez da, eta jokabide disposizioak esperientzia kontzienteak kausatutakoak dira baina ez dira esperientzia kontzientearen parte.

Beste era batera esanda, kontzientziaren problema hauxe da: nola da posible kuantitatiboki deskriba daitezkeen neurona aktibatze fisiko eta objektiboek esperientzia kualitatibo, pribatu eta subjektiboak kausatzea? Nola egiten du garunak elektrokimikatik sentipenerako jauzia?

Materialismotik galdera hauei ematen zaizkien erantzun ezberdinen ildo nagusiez arduratuko gara segidan.

4.

Materialismotik gogoia eta kontzientzia⁵ esplikatzeko egindako saioek bi jarrera hauetako bat hartu behar izan dute: mentala den ezeren existentzia ukatu ala, gogoia ametitzekotan, fisikoa den zerbaitetara erreduzitzen saiatu. Erreduzio materialistarako XX. mendeko lehen saio garrantzitsuari konduktismoa deitzen diogu.⁶ Oso labur esanda, hauentzak gogo-egoerak ez dira jokabiderako disposizioak baizik eta

⁵ Beste ohar terminologiko bat: “gogoia” eta “kontzientzia” ez dira hitz sinonimoak. Bien arteko harreman estua ukaezina da baina badira gogo-prozesu eta egoerak kontzienteak ez direnak.

⁶ Mende hasierako filosofo konduktista nagusietako batzuk Carnap, Hempel, Russell, Wittgenstein eta Ryle daude. Gure garaiko konduktista ezagun bat, Quine. Esan gabe doa, bakoitza neurri eta modu diferentetan direla konduktista eta gehienak ez direla hemen egin dudak konduktismoaren deskripzio laburrarekin identifikatu behar.

jokabideak, berriz, ez dira gorputz mugimenduak baino. Gogoaren ukazioa, beraz. Konduktismoak gogoia esplikatzen dituen zailtasunak ezagunak dira eta ez ditugu hemen errepikatuko.

Handik gutxira sortutako fisikalismoa eta identitate teoriek⁷ hauxe esango digute: gogo-egoerak eta garun-egoerak identikoak dira. Honek goiko (2) galderari emango liokeen erantzuna ezezkoa litzateke. Erabat ezinezkoa litzateke gogo-egoerak dituen makinarik edo robotik eraikitzea. Baina zergatik? Zer du gure garunak, garunik gabeko gogo-egoerarik ezinezkoa izateko? Ezinezkoa al litzateke beste planetaren bateko izaki batek gogo-egoerak izatea kimika diferentea izanagatik?

Konduktismoaren eta identitate teoriaren gauzarik onenak hartu eta, aldi berean, bi horien zailtasunak saihesten dituen teoria izan nahi du funtzionalismoak.⁸ Funtzionalismoaren arabera gogo-egoerak egoera fisikoak dira bai, baina ez dira “mentaltzat” bere izaera fisikoagatik bere erlazio kausalengatik baizik. “Gogo-egoerak” emaitza jakin bat ematen dute bere lana edo funtzioa egokiro betez gero. Ez du inporta zerez eginak dauden, bere erlazio kausalak baino. Usteak eta desioak sistema fisikoen egoera fisikoak dira, baina sistemak material diferenteez eginak egon daitezke. Zerbait “uste” edo “desio” izango da, egiten duenaren arabera, bere erlazio kausalen arabera, ez sistema osatzen duen materialaren arabera. Horregatik, garunek baina baita beste materialez osatutako sistemek ere—konputagailuek, robotek, extralurtarrek—izan ditzakete gogo-egoerak erlazio kausal egokiak badituzte. (1) eta (2)-ri baiezkoa erantzuten die, beraz, funtzionalismoak.

Funtzionalismoa gure garaiko teoria dominantea bihurtu da gogoaren filosofian eta zientzia kognitiboetan. Dualismoaren anti-zientifikotasuna eta materialismoaren bertsio konduktistaren eta fisikalismoaren arazoak ikusita, funtzionalismoa da bide bakarra askoren ustetan. Are gehiago, funtzionalismoa “ordenagailuaren metaforaren” bitartez azaltzen denean. Funtzionalismo konputazionalaren bertsiorik gogorrenaren arabera, garuna konputagailua bat da eta gogoia konputagailu programa bat da,

⁷ J.C. Smart.

⁸ H. Putnam, Fodor eta D. Lewis, besteak beste, defendatzen dutena.

garunean inplementatua. Honi deitzen zaio “Adimen Artifizial Gogorra”. Gogo-egoerak garunaren programa-egoerak baino ez dira.⁹

Baina kontzientzia esplikatu behar denean, nola ez, funtzionalismoak ere problema serioak ditu. Har dezagun minaren adibidea. Lehen aipatu dugunez, minari buruz bi gauzaok defenda ditzakegu:

1. Minak sentipen desatseginak dira; esperientzia desatsegin, barruko, kualitatibo eta subjektiboak.
2. Garuneko eta gainontzeko nerbio-sistemako prozesu neurobiologikoek kausatuak dira minak.

Funtzionalismoak, aldiz, bi horiek ukatu beste erremediorik ez dauka eta beste bi tesiok defendatu:

1. Minak garuneko nahiz beste ezereko organizazio funtzionalen parte diren egoera fisikoak dira. Gizakion kasuan organizazio funtzionala honakoa da: estimulo jakin batzuk, kolpeek esaterako, nerbio sistemaren egoera fisikoak kausatzen dituzte eta azken hauek jokabide fisiko jakin bat kausatzen dute.
2. Gizakiongan, beste edozein sistematan bezala, funtzionalki antolatutako egoera fisiko horiek ez dute mina kausatzen; egoera horiek dira mina, kitto.

Honen aurrean, funtzionalismoa gustoko duten filosofoek bi aukera dituzte kontzientzia esplikatzekoan: bietako bat, funtzionalismoa baztertu eta kontzientziaren reduzigaiztasuna mantentzen dute ala funtzionalismoa mantendu eta kontzientziaren reduzigaiztasuna baztertu.

⁹ Esan dezadan, bide batez, Searlek aurkeztutako “gela txinatarraren argudio” famatua funtzionalismo konputazionalaren tesi horretxan kontrako argudioa dela, hiru puntu hauetan labur daitekeena:

1. Konputagailu programak sintaktikoak dira erabat,
2. Gogoak semantika du.
3. Sintaxia ez da semantika, ezta berez semantikarako nahikoa ere.

Horregatik, ezinezkoa da gogo konputagailu programa bat besterik ez izatea, hau da, Adimen Artifizial Gogorra oker dago.

Gaur egun kontzientziaren arazoari buruz dagoen eztabaida filosofikoen hartzen diren jarrera ezberdinak aukera horien artean egiten duten hautuaren arabera sailka daitezke. Adibidez, Thomas Nagelek funtzionalismoa baztertzen du kontzientziaren arazoa dela-eta; Daniel Dennetek, ordea, kontzientzia baztertzen du funtzionalismoaren alde.¹⁰

5.

Orain artekoa filosofoek garuna, gogo eta kontzientziari buruz izan duten eztabaida. Baina zientziek, zer diote zientziek kontzientziaren arazoari buruz? Itxura guztien arabera, zientzilariek ere ez dakite, ez dakizue, askorik kontzientziari buruz. Bestalde, ez naiz ni hipotesi zientifiko nagusien xehetasunak hemen azaltzen hasteko pertsonarik egokiena. Hipotesi nagusi batzuen alderdi gutxi batzuk baino ez ditut aipatuko, konkretuki, Francis Crickena,¹¹ Gerald Edelmanena¹² eta Roger Penrosena,¹³ orain arte landu ditugun arazoen harira betiere.

1. Kontzientziaren azterketarako abiapuntu gisa autoreok giza garunaren funtzionamenduaren azterketa hartzen dute. Neurozientzilariek erabat naturala ikusiko duzue abiapuntu hau, baina dominantea dela esan dugun funtzionalismo konputazionalaren ikuspegitik ez luke zertan horrela izan behar. Esan nahi baita, gogo eta kontzientziaren azterketaren funtzionalismoaren oinarriak esan ohi dena baino askoz ere antibiologikoagoak dira. Konputagailu programen ezaugarria da programa bera hardware klase dexente ezberdinetan implementatu ahal izatea eta hardware berak programa mota zeharo diferenteentzako euskarri izan ahal izatea. Ildo honetatik jarraiki, garuna ez litzateke gogoaren euskarri izan litekeen

¹⁰ Thomas Nagel: "What is it like to be a bat?", *Philosophical Review* 4, 1974, 435-450; *The view from nowhere*. Oxford: Oxford University Press, 1986. Daniel Dennet: *Consciousness explained*. Boston: Little, Brown and Company, 1991; *Kinds of minds: Towards a theory of consciousness*. New York: BasicBooks, 1996.

¹¹ Francis Crick: *The astonishing hypothesis: The scientific search for the soul*. Simon and Schuster, 1994.

¹² Gerald Edelman: *The remembered present: A biological theory of consciousness*. New York: BasicBooks, 1989; *Bright air, brilliant fire: On the matter of the mind*. New York: Basic Books, 1992.

¹³ Roger Penrose: *Shadows of the mind: A search for the missing science of consciousness*. Oxford: Oxford University Press, 1994.

hardware posible askoren artean bat baino. Garunaren azterketari ez zaio beraz, funtzionalismoaren arabera, zientziolariok eskaintzen dioten funtsezko arreta zertan eskaini behar gogoaren eta kontzientziaren azterketan,.

2. Hiru zientzilari horiek ez dira ados jartzen azterketan oinarrizko unitatatzat hartu beharrekoaz. Crickek neurona eta bere aktibitate intentsitateak proposatzen ditu kontzientziaren esplikaziorako giltza bezala. Edelmanen iritziz, neuronak txikiegiak dira eta neurona mapak hartu behar dira oinarrizko unitatetzat. Penrosentzat, aldiz, neuronak haundiegiak dira eta mikrotubuloak proposatzen ditu. Honek guztiak hasteko adierazten duena neurozientzien gabezi bat da: ez dago garunaren funtzionamenduari buruzko teoria unitario bat, materiaren teoria atomikoa, herentziaren teoria genetikoa, eboluzioaren hautespen naturalaren teoria bat eta abarrekoak dauden bezalakoak. Garunean gertatzen diren gauza asko ezagutzen ditugu, baina ez daukagu teoria bateratu bat prozesu neurobiologiko ezberdinek geure bizitza mentala nola kausatu, egituratu eta antolatzen duen esplikatzuz. Eta hau funtsezkoa da kontzientziaren azterketarako. Eta hau da kontzientziaren arazoa misterioitsu izaten segitzearen arrazoi nagusietako bat: neurozientzietan ez daukagula teoria bateraturik eta, are gehiago, teoria horrek izango lukeen itxura ere nekez imajina dezakegula.

Eta hemen puntualizazio bat garrantzizkoa dela dirudi. Cricken ildoazuzena balitz, nahiko garbi izan genezake kontzientzi egoera neurologikoen funtzionamenduaren teoriaren itxura. Hori urrats handia da kontzientziaren arazoaren argitzean. Baina horrelako teoria bat finkatuta ere kontzientziaren arazoaren muina bere hortan legoke. Kontzientziaren arazoa prozesu neurobiologikoek gure sentimen esperientzia subjektiboak nola *kasusatzen dituzten* esplikatzea da. Eta horrelako teoria bat nolakoa izan litekeen da inork gutxik imajina dezakeena.

6.

Kontzientziaren arazoaren soluziobideari begira, orduan, zer? Honi buruz Searlen ideiak laburtuko dizkizuet, orain arte bezala. Kontzientziaren misterioa neurobiologiaren aurrerakuntzarekin

konponduz joango da; garunaren azterketan aurrera egiten duen heinean. Horretan filosofiak ere lagun dezake, hasteko, dualismoa eta materialismoaren arteko eztabaidak sortutako hiztegia alboratuz. Bere ustez, arazoaren konponbiderako kaltegarria da “fisikoa” eta “mentala” bi kategoria nagusi bakarrak bailiren hitzegitea, substantzia ala propietate, biak izaera autonomo ala bata bestera erreduzitu beharrekoa. Munduan propietate erreal mota asko dago: elektromagnetikoak, ekonomikoak, gastronomikoak, estetikoak, geologikoak, historikoak, politikoak, ... Hauen arteko bereizketa nagusia ez da propietate “fisiko” eta “mentalen” artekoa beste hau baizik: behatzaileaz independente diren munduaren ezaugarriak—indarra, masa eta grabitate erakarpena, esaterako—eta behatzailearen menpeko ezaugarrien artekoa—hala nola, dirua, jabegoa, ezkontza, gobernuak. Eta honela formulatzen du bere tesia: munduan diren behatzaile-menpeko propietate guztiek kontzientziaren premia dute esistitu ahal izateko baina kontzientzia bera ez da behatzailearen menpekoa. Kontzientzia zuek eta ni bezalako sistema biologikoen ezaugarri intrinseko eta errealak da. Ez dago beste fenomeno mota batera erreduzitu beharrik, berau kausatzen duten garun prozesuak aurkitu baizik.

7.

Horra beraz kontzientziaren arazoaren eztabaidaren egoera. Problema zein den eta ikerketaren egoerari gainbegiratu bat eman diogu sikiera. Bukatzeko, kontzientziaren arazoaren konpontzearen balizko ondorioei buruz jardun nahi dut, halabeharrez oso labur eta, oraingoan, Searle eta enparauak alde batera utzita.

Kontzientziaren esplikazio biologikoaren ondorio filosofikoak maiz esajeratu egiten direla iruditzen zait. Gizakia eta ingurunearekiko bere erlazioez dugun ikuskera zeharo irauliko lukeela entzuten da askotan. Baina gizakion jardun kontziente guztia zalantzan jarriko al litzateke jardun hori makina biologiko batean nola gertatzen den esplikatzeko hutsagatik? Hau erantzun aurretik egin beste galdera hau: Giza bizitzaren oinarriak zalantzan jarri al dira bizitzaren esplikazio biologiko bat dugunetik? Esplikazio horren aurretik *elan vitalzaleek* eta esplikazio mekanizistazaleek gaur kontzientzia eta gogoari buruz dualistek eta materialistek duten eztabaidaren antzekoa zuten. Eta biologiak aurrera egin ahala bizitzaren azalpen bat daukagunez gero,

zenbatekoa izan da inpaktua gizakiok geure bizitzari buruz dugun ikuskeran?

Nik uste arazo filosofiko nagusiak beren errotan dauden horretan egongo direla kontzientziaren azalpen biologikoaren ondoren ere. Etikan, adibidez, jokabide moralaren arrazoizko printzipioen bilaketa ez dut ikusten nola jar dezakeen kolokan kontzientziaren misterioaren argitzeak. Alderantziz, kontzientziaren azalpenak eman ditzake kontsiderazio etikotarako elementu gehiago. Kontzientziarik gabeko harriak txikitzea eta kontzientziadun zakurra edo autokontzientziadun gizakia hiltzea izaera moral ezberdineko ekintzak kontsideratzen ditugunok, bakoitzaren sufrimendu gaitasunean (kontzientzian) oinarritzen ditugu. Kontzientziari buruz gehiago dakigun neurrian kontsiderazio hauek oinarri sendoagotan egingo ditugu; ez dute zertan desagertu beharrik, ez dut ikusten zergatik.

Guzti honek ez dio garrantzia kentzen, inondik ere ez, kontzientziaren arazoari. Gaur egun zientzietan eta filosofian dagoen arazorik liluragarriena da garunarena, gogoarena, kontzientziarena. Eta filosofo eta zientzilarien elkarlana eskatzen duena.